Esp. kodea: 2025CHOZ0049

Gaia: 2014ko TAKOLO-GOIRU TARTEAREN BERRURBANIZAZIO PROIEKTUKO D FASEAREN BERRIDAZKETARAKO ZERBITZUA

ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA

PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUA, IRIZPIDE ANIZTASUNEZ ETA PROZEDURA ARRUNTAREN BIDEZ

ZERBITZU KONTRATUA

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuak, agiri honen arabera egiten dena, xede hau izango du: **ARRASATEKO TAKOLO-GOIRU TARTEAREN BERRURBANIZAZIO PROIEKTUKO (2014koa) "D" FASEAREN BERRIDAZKETARAKO ZERBITZUA KONTRATATZEA** preskripzio teknikoen agian, agiri honetan eta kontratuaren adjudikaziodun ateratzen den eskaintzan zehaztutako baldintzetan.

Kontratuaren xedea da 2014an Arrasateko Udalak idatzitako Takolo-Goiru tarteko kaleen berrurbanizaziorako proiektuko "D" fasearen zatia berridaztea.

Zerbitzuaren ezaugarriak direla eta, kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak ezarritako hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidearen mende dago, eta, **beraz, enpresa esleipendunak kontuan izan beharko du**:

Kontratuan aurkezten diren dokumentuak (memoriak, planoak, aurkezpenak...) jendaurrean aurkeztu ahal izango direnez, euskaraz eta gaztelaniaz prestatu beharko dira.

PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES

PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO, CON PLURALIDAD DE CRITERIOS Y TRAMITACION ORDINARIA

CONTRATO DE SERVICIOS

I.- CONTENIDO DEL CONTRATO

1. OBJETO DEL CONTRATO

El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto la prestación del **CONTRATACIÓN DEL SERVICIO PARA UNA NUEVA REDACCIÓN DE LA FASE "D" DEL PROYECTO DE REURBANIZACIÓN DEL TRAMO TAKOLO-GOIRU DE ARRASATE**, en las condiciones determinadas en el Pliego de Prescripciones Técnicas, en el presente Pliego y en la oferta que resulte adjudicataria del

El objeto del contrato es el de conseguir una nueva redacción para la fase "D" del proyecto para la reurbanización de calles entre Takolo-Goiru redactado por el Ayuntamiento en 2014.

Debido a las características propias de la prestación, este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco y por tanto **la empresa adjudicataria deberá tener en cuenta:**

Dado que los documentos que se presenten en el contrato (memorias, planos, presentaciones…) podrán ser objeto de presentación pública, deberán prepararse en euskara y castellano.

Berrurbanizazio Proiektuaren honako dokumentu hauek, gutxienez, euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko dira: memoria, aurrekontuaren laburpen-orria eta planoak (tituluak eta legendak).

Al menos los siguientes documentos del Proyecto de Reurbanización se deberán redactar en euskera y castellano: memoria, hoja resumen del presupuesto y planos (títulos y leyendas).

CPV kodea: 71000000-8 Arkitektura, eraikuntza, ingeniaritza eta ikuskapen zerbitzuak.

Codificación C.P.V.: 71000000-8 Servicios de arquitectura, construcción, ingeniería e inspección.

2. EXEKUZIO EPEA

Prestazioa emateko epea, guztira **LAU HILABETEKOA** izango da, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita (kontratuaren sinadura data izango da, kontratazio-organoaren ordezkariaren sinadura-data).

Idazketa bitarteko fase eta epe hauen arabera garatuko da:

a) 1. fasea entregatzeko: HILABETE (Analisia eta alternatibak).

b) 2. fasea entregatzeko: HILABETE (Aurreproiektua).

c) 3. fasea entregatzeko BI HILABETE (Berrurbanizazio Proiektua).

2. PLAZO DE EJECUCIÓN

El plazo total de ejecución de la prestación será de **CUATRO MESES**, contado a partir del siguiente al de la firma del contrato (la fecha de firma del contrato será la fecha de firma por el representante del órgano de contratación).

Se desarrollará de acuerdo a las siguientes fases intermedias y plazos:

a) UN MES para la entrega de la Fase 1 (Análisis y alternativas).

b) UN MES para la entrega de la Fase 2 (Anteproyecto).

c) DOS MESES para la entrega de la Fase 3 (Proyecto de Reurbanización).

Nolanahi ere, Udalak epe horiek aldi baterako eten ahal izango ditu, Udalaren beraren barne-izapidetzearen beharrengatik. Zehazki, fase bakoitza entregatu ondoren, kontratuaren epea eten egingo da udalaren oniritzi formala lortu arte, eta, horren ondoren, kontratuaren epeari berrekingo zaio.

En cualquier caso, el Ayuntamiento podrá suspender temporalmente dichos plazos por necesidades de tramitación interna del propio Ayuntamiento. Concretamente, tras la entrega de cada fase, el plazo del contrato se interrumpirá hasta obtener el visto bueno formal del ayuntamiento, después del cual se reanudará el plazo del contrato.

Aurreko epeei dagokienez gerta daitezkeen eteteek ez dute inolako aldaketarik eragingo kontratuaren prezioari dagokionez.

Las eventuales interrupciones que puedan producirse en relación a los plazos anteriores no producirán alteración alguna en lo que al precio del contrato se refiere.

Enpresa kontratatua berandutze egoeran egongo da epe hori/horiek igaroz gero, eta administrazioaren aldetik ez da beharrezkoa izango aurrez ohartaraztea.

La empresa contratada se entenderá incursa en mora por el transcurso del plazo/plazos citados, no siendo necesaria intimación previa por parte de la Administración.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren lizitazio oinarriaren aurrekontua da **33.000,00€ €** BEZ barik, eta 39.930,00 €, Balio Erantsiaren gaineko Zerga gehituta, %21. Kopuru hori hobetu ahal izango dute lizitatzaileek beren eskaintzetan eta plegu honen II. eranskinaren arabera aurkeztu beharko da.

Kontratuaren osotasunerako balio estimatua da **33.000,00 €** BEZa sartu barik.

Kontratua adjudikatu eta gero, prezioan sartuta egongo dira gastu eta zerga guztiak, kontratua ematearen ondorioz sortuak.

Azken Proiektua Elkargo Profesionalak bisatuta aurkeztuko da derrigorrez, eta kostu hori lizitazio-prezioan sartuta dagoela ulertzen da.

3. PRECIO DEL CONTRATO

El Presupuesto Base de Licitación del contrato es de **33.000,00€ €** IVA excluido, y de 39.930,00 € incluido el Impuesto sobre el Valor Añadido del 21%. Dicha cantidad podrá ser mejorada a la baja en sus ofertas por los licitadores y deberá ser presentado de acuerdo al Anexo II del presente Pliego.

El valor estimado para la globalidad del contrato es de **33.000,00 €**, IVA excluido.

Una vez adjudicado el contrato, en el precio se entenderán incluidos todos los gastos e impuestos que se ocasionen como consecuencia de la prestación del servicio.

El visado colegial del Proyecto final es obligatorio y se entenderá incluido también en el precio de licitación.

4. FINANTZAKETA

Nahiko kreditu dago aurrekontuan obligazioei erantzuteko, kontratuaren ondorioz udalak bete beharrekoak.

Aurrekontuko kontusaila: 1.0500.643.133.00.00 (2025) TAKOLO-GOIRU BERREGOKITZEA (BK 2296)

Halaber, organo eskudunak, aurrekontuari buruz, konpromisoa hartzen du dagozkion kredituak erreserbatzeko eragina izango duten hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan.

4. FINANCIACIÓN

Existe crédito presupuestario suficiente para atender a las obligaciones que se deriven para el Ayuntamiento del cumplimiento del contrato.

Partida presupuestaria: 1.0500.643.133.00.00 (2025) TAKOLO-GOIRU BERREGOKITZEA (BK 2296)

Asimismo, el órgano competente en materia presupuestaria se compromete a reservar los créditos oportunos en los presupuestos de los ejercicios futuros que resulten afectados.

5. NOLA ORDAINDU

Zerbitzuaren prezioa ordainduko da :

.- Kopuru osoaren %20a lehenengo faseko lanak egin eta dokumentu guztiak aurkeztu ondoren.

.- Kopuru osoaren %30a, bigarren faseko lanak egin eta dokumentu guztiak aurkeztu ondoren.

.- Kopuru osoaren %40a, hirugarren faseko lanak egin eta dokumentu guztiak aurkeztu ondoren.

.- Kopuru osoaren %10a behin udalak urbanizazio proiektuari onarpen formala ematen dionean.

Zerbitzuaren prezioa ordainduko faktura aurkeztu eta gero. Faktura hori zerbitzuaren udaleko arduradun teknikariak gainbegiratu eta kontrastatu beharko du eta, hala badagokio, organo eskudunak onartuko du.

5. FORMA DE PAGO

El pago del precio del servicio se realizará:

.- El 20% del total una vez realizados los trabajos de la primera fase y presentada la documentación completa.

.- El 30% del total , una vez realizados los trabajos de la segunda fase y presentados todos los documentos.

- El 40% del total, una vez realizados los trabajos de la tercera fase y presentados todos los documentos.

.- El 10% del total una vez que el Ayuntamiento haya dado su aprobación formal al proyecto de urbanización.

El pago del precio del servicio se realizará previa presentación de la correspondiente factura, la cual será supervisada y contrastada por parte de la persona técnica municipal responsable del servicio y, si procede, aprobada por el órgano competente.

Fakturak onartuta, haiek ordainduko dira legezko epeetan, xedatutakoak 198. artikuluan, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuena.

Enpresa kontratistak faktura aurkeztuko du formatu elektronikoan, Gipuzkoako Fakturen Sarrera Puntu orokorraren bidez (FSPOe) (https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua), udal aurrekontuaren exekuzio arauan ezarritakoaren arabera, 25/2013 Legea, abenduaren 27koa, betetzeko, bultzatzen duena faktura elektronikoa eta sortzen duena fakturen kontabilitate erregistroa sektore publikoan.

Unitate organikoen DIR3 kodeak:

Arrasateko Udala:

- Organo kudeatzailea: L01200551
- Unitate tramitatzailea: L01200551
- Kontabilitate bulegoa: L01200551

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontuan izanik kontratuak zer ezaugarri dituen, ez dagokio prezioak berraztertzea.

7. BERMEAK

Behin-behineko bermea:

Ez da eskatzen.

Behin betiko bermea.

Kontratuaren adjudikazioduna, bere gain hartutako obligazioak beteko dituela bermatzeko, behartuta

Una vez aprobadas las facturas, éstas serán abonadas dentro de los plazos legalmente previstos en el artículo 198 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

La empresa contratista presentará la(s) factura(s) en formato electrónico, a través del Punto General de Entrada de Facturas de Gipuzkoa (PGEFe) (https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua), según lo dispuesto en la Norma de Ejecución Presupuestaria municipal, en cumplimiento de la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, de impulso de la factura electrónica y creación del registro contable de facturas en el Sector Público.

Códigos DIR3 de las unidades orgánicas:

Ayuntamiento de Arrasate:

- Órgano gestor: L01200551
- Unidad tramitadora: L01200551
- Oficina contable: L01200551

6. REVISIÓN DE PRECIOS

Dadas las características del contrato no es aplicable al mismo la revisión de precios.

7. GARANTÍAS

Garantía provisional:

No se exige.

Garantía definitiva:

La empresa adjudicataria del contrato, a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones

dago behin betiko bermea jartzen, adjudikazioaren zenbatekoaren %5ekoa, BEZ barik.

Kontratuaren enpresa adjudikaziodunaren proposamen ekonomikoa kontsideratuz gero hasiera batean ez normaltzat edo neurriz kanpokoa, baina gero onartu bada, aurreko bermeaz gain berme osagarri bat jarri beharko du, adjudikazio zenbatekoaren %5ekoa; hortaz, bermea guztira izango da kontratuaren prezioaren %10.

Epea, berme hori jartzeko, 7 egun baliodunekoa izango da, eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera, eta jarri ahal izango da azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuena, 108. artikuluan ezarritako edozein bide erabiliz, eskudirutan jarritakoak izan ezik, horiek Arrasateko Udalaren edozein kontu korrontetan sartu behar dira eta.

Kontratistari egotzi beharreko arrazoiengatik ez badu emandako epean behin betiko bermea jartzen, Udalak ez dio adjudikazioa emango, eta ulertuko da lizitatzaileak erretiratu egin duela bere eskaintza; jarraian, zigor gisa, lizitazioaren oinarri aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZik gabe.

Kontratistari exijitutako behin betiko bermeari dagozkion zigor edo kalte-ordainak ordaintzen direnean, honek aldatu edo handitu egin beharko du bermea dagokion zenbatekoan, hamabost eguneko epean exekuzioaz geroztik; hala ez badu egiten, deuseztatzeko arrazoia dela ulertuko da.

Kontratuaren aldaketa baten ondorioz kontratuaren prezioa aldatzen bada —aldatutako prezio berriarekin dagokion proportzioa izan dezan—,

contraídas, está obligada a constituir una garantía definitiva por importe del 5% del importe de adjudicación, excluido el IVA.

En el caso de que la proposición económica de la empresa adjudicataria del contrato se hubiera considerado inicialmente como anormal o desproporcionada, para posteriormente ser aceptada, además de la garantía anterior deberá de constituir una garantía complementaría de un 5% del importe de adjudicación, de tal forma que la garantía total alcanzará el 10% del precio del contrato.

El plazo para la constitución de la citada garantía será de siete días hábiles contados a partir del siguiente a aquel en que la empresa licitadora que haya presentado la mejor oferta hubiera recibido el requerimiento, y podrá constituirse en cualquiera de los medios establecidos en el artículo 108 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, con la salvedad de que las constituidas en metálico deberán de ser ingresadas en cualquiera de las cuentas corrientes del Ayuntamiento de Arrasate.

De no constituir la garantía definitiva en el plazo otorgado por causas imputables al contratista, el Ayuntamiento no efectuará la adjudicación a sufavor, y se entenderá que el licitador ha retirado suoferta, procediéndose a exigirle el importe del 3% del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad.

Cuando se hagan efectivas sobre la garantía definitiva las penalidades o indemnizaciones exigibles al contratista, este deberá reponer o ampliar aquélla, en la cuantía que corresponda, en el plazo de quince días desde la ejecución, incurriendo en caso contrario en causa de resolución.

Cuando, como consecuencia de una modificación del contrato, experimente variación el precio del mismo, deberá reajustarse la garantía, para que guarde la

bermea ere birmoldatu egin beharko da hamar laneguneko epean, enpresariari aldaketa-akordioa jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita.

Berme osoa edo, hala badagokio, zati bat itzuli behar bada, egingo da Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 111. artikuluan xedatutakoaren arabera, bermearen epea bukatutakoan eta adjudikaziodunak betetzen dituenean kontratuaren obligazio guztiak.

debida proporción con el nuevo precio modificado, en el plazo de diez días hábiles contados desde la fecha en que se notifique al empresario el acuerdo de modificación.

La devolución de la garantía, tanto total como parcial en su caso, se realizará de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 111 de la referida Ley de Contratos del Sector Público, una vez vencido el plazo de garantía y cumplidas por la empresa adjudicataria todas sus obligaciones contractuales.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

8. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA

Kontratu hau adjudikatuko da PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU bidez, eta erabiliz adjudikazio irizpide ugari, kalitate-prezio erlazio onenaren arabera.

Kontratuaren balio zenbatetsia 143.000 €-tik beherakoa da, eta balio-iritzien bidez ebalua daitezkeen esleipen-irizpideen ponderazioak ez du guztizkoaren % 45 gainditzen (159.1.b artikulua izaera intelektualeko prestazioa delako, SPKLren 41. XGaren arabera).

Hona hemen zer irizpide hartuko diren prozedura ireki sinplifikatua adjudikatzeko:

II.- PROCEDIMIENTO PARA CONTRATAR

8. PROCEDIMIENTO Y FORMA DE ADJUDICACIÓN

La adjudicación del presente contrato se realizará mediante PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO, utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación en base a la mejor relación calidad-precio.

El valor estimado del contrato es inferior a 143.000 € y la ponderación de los criterios de adjudicación evaluables mediante juicio de valor no supera el 45% del total (art. 159.1.b, por tratarse de prestación de carácter intelectual según DA 41ª de la LCSP).

Los criterios que han de servir de base para la adjudicación del procedimiento abierto simplificado son los siguientes:

IRIZPIDEAK, MODU AUTOMATIKOAN KUANTIFIKAGARRIAK. 55 PUNTU (sartzeko B ARTXIBO ELEKTRONIKOAN)	**CRITERIOS CUANTIFICABLES DE FORMA AUTOMÁTICA. 55 PUNTOS (a incluir en ARCHIVO ELECTRÓNICO B)**

Esp. kodea: 2025CHOZ0049

Gaia: 2014ko TAKOLO-GOIRU TARTEAREN BERRURBANIZAZIO PROIEKTUKO D FASEAREN BERRIDAZKETARAKO ZERBITZUA

1.- ESKAINTZA EKONOMIKOA: 35 puntu. (B ARTXIBO ELEKTRONIKOAN sartu beharrekoa)

Puntuaziorik altuena emango zaio preziorik merkeenari, eta formula honetatik ateratzen da gainontzeko proposamenen puntuazioa: preziorik baxueneko eskaintza zatitu baloratzen den lizitatzailearen eskaintzaz eta emaitza hori biderkatuz irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa. Hau da,

Lp= Et/Le x 35

Non-eta:
Lp: lizitatzailearen puntuazioa
Et: eskaintzarik txikiena
Le: lizitatzailearen eskaintza

Printzipioz, eskaintzak kontsideratuko dira ezohikoak edo neurriz kanpokoak, lizitaziotik baztertu egin daitezkeelarik, baldin eta aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino txikiagoak badira, 15 portzentaje unitatetik gora. Adierazpen hori egin aurretik, informazioa eskatu beharko zaie lizitatzaile guztiei, ustez eskaintza horretan parte hartu dutenak, eta aholku teknikoa dagokion zerbitzuari.

Kasu guztietan, eskaintzak baztertu egingo dira baldin eta egiaztatzen bada ohiz kanpo baxuak direla, zeren urratzen baitute azpikontratazioaren gaineko araudia edo ez baitituzte betetzen betebeharrak ingurumen, gizarte edo lan arloan, estatuan edo nazioartean, eta ez baitituzte betetzen arloko hitzarmen kolektiboak, indarrean daudenak, 201 artikuluan ezarritakoa aplikatzeko.

1.- OFERTA ECONOMICA: 35 puntos. (a incluir en ARCHIVO ELECTRÓNICO B)

Se otorgará la máxima puntuación al precio más económico y la puntuación del resto de las ofertas se desprende de la fórmula de multiplicar el resultado del cociente entre el precio más bajo y la oferta de la empresa licitadora que se valora por el número total de puntos aplicables al criterio. Esto es,

Pl= Ob/Ol x 35

Donde:
Pl: Puntuación empresa licitadora
Ob: Oferta más baja
Ol: Oferta empresa licitadora

Se considerarán, en principio, como anormal o desproporcionadas, pudiendo ser excluidas de la licitación, las ofertas inferiores en más de 15 unidades porcentuales a la media aritmética de las ofertas presentadas. Su declaración requerirá la previa solicitud de información a todas las empresas licitadoras supuestamente comprendidas en ella, así como el asesoramiento técnico del servicio correspondiente.

En todo caso, serán rechazadas las ofertas si se comprueban que son anormalmente bajas porque vulneran la normativa sobre subcontratación o no cumplen las obligaciones aplicables en materia medioambiental, social o laboral, nacional o internacional, incluyendo el incumplimiento de los convenios colectivos sectoriales vigentes, en aplicación de lo establecido en el artículo 201.

Ulertuko da, kasu guztietan, justifikazioak ez duela azaltzen ongi lizitatzaileak proposatutako prezioen edo kostuen maila baxua, justifikazioa denean osatugabea edo oinarritzen denean hipotesi edo praktika desegokietan ikuspegi tekniko, juridiko edo ekonomiko batetik.

Se entenderá en todo caso que la justificación no explica satisfactoriamente el bajo nivel de los precios o costes propuestos por la empresa licitadora cuando esta sea incompleta o se fundamente en hipótesis o prácticas inadecuadas desde el punto de vista técnico, jurídico o económico.

2.- IDAZLE-TALDEA HANDITZEA ETA EMAKUMEAK ETA/EDO GAZTEAK EDUKITZEA LAN TALDEAN: 15 puntu (B ARTXIBO ELEKTRONIKOAN sartu beharrekoa)

2.1. Proiektua idatziko duenari eskatutako titulazioa honako hauetakoren bat da: Arkitektoa ala Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria (edo horien baliokide diren Arkitekturan Masterra edo Ingeniaritzan Masterra; haien lanbideei ekin ahal izateko gaitasuna ematen dienak). Emango den zerbitzuari zuzenean lotutako pertsonal tekniko gehigarria idazle-taldean egotea baloratuko da. Harreman hori frogatuko da pertsona horiek kontratuaren baitan dituzten funtzioak adierazita.

Balorazioa honakoa izango da: justifikatzen eta onartzen den pertsona gehigarri bakoitzagatik puntu bana, gehienez ere 8 puntu izango direlarik. Kontratuari atxikitako pertsona hauek onartuko dira:

- Honako unibertsitate-titulazioren bat dutenak (gehienez 4 puntu; alegia, 4 pertsona titulazio horietakoren bat dutenak): Arkitektura, Arkitektura Teknikoa, Ingurumen Ingeniaritza, Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritza, Ingeniaritza Elektrikoa, Energia Berriztagarrien Ingeniaritza, Soziologia edo Geografia.

2.- AMPLIACIÓN DEL EQUIPO REDACTOR Y CONTAR CON MUJERES Y/O JÓVENES EN ESE EQUIPO: 15 puntos. (a incluir en ARCHIVO ELECTRÓNICO B)

2.1. La titulación exigida al redactor del proyecto es la siguiente: Arquitecto o Ingeniero de Caminos, Canales y Puertos (o sus equivalentes Máster en Arquitectura o Máster en Ingeniería, que les capacite para el ejercicio de sus profesiones). Se valorará la presencia en el equipo de redactores de personal técnico adicional vinculado directamente al servicio a prestar. Esta relación se demostrará indicando las funciones de estas personas en el marco del contrato.

La valoración será de un punto por cada persona adicional que se justifique y admita, hasta un máximo de 8 puntos. Se admitirán las siguientes personas adheridas al contrato:

- Quienes posean alguna de las siguientes titulaciones universitarias (máximo 4 puntos, es decir, 4 personas con alguna de ellas): Arquitectura, Arquitectura Técnica, Ingeniería Ambiental, Ingeniería de Caminos, Canales y Puertos, Ingeniería Eléctrica, Ingeniería de Energías Renovables, Sociología o Geografía.

-Gizon eta Emakumeen Berdintasun gaietan goi mailako ikasketak (Unibertsitate ofizialek eskainitakoak eta gutxienez 150 orduko eskola-karga dutenak) dituztenak. Atal honetan, gehieneko puntuazioa 2 puntukoa izango da (alegia, 2 pertsona halako ikasketak eginak dituztenak).

- Personas con estudios superiores en materia de Igualdad de Mujeres y Hombres (ofertados por Universidades oficiales y con una carga lectiva mínima de 150 horas). La puntuación máxima en este apartado será de 2 puntos (es decir, 2 personas con estudios de este tipo).

-Gutxienik % 33ko desgaitasun-maila ofizialki aitortua duten pertsonak. Atal honetan, gehieneko puntuazioa 2 puntukoa izango da (alegia, 2 pertsona halako ikasketak eginak dituztenak).

- Personas con un grado de discapacidad reconocido oficialmente de al menos el 33%. La puntuación máxima en este apartado será de 2 puntos (es decir, 2 personas con estudios de este tipo).

2.2. Kontratua egikaritzeari, kudeatzeari eta/edo koordinatzeari atxikitako lanpostu tekniko edo kualifikatuetan emakumeak izateagatik puntu bana emango zaio lizitatzaile bakoitzari, gehienez ere 5 punturaino.

2.2. Por la adscripción de mujeres en puestos de carácter técnico o cualificado adscritos a la ejecución, gestión y/o coordinación del contrato, se otorgará a cada licitador un punto hasta un máximo de 5 puntos.

2.3. Kontratua egikaritzeari, kudeatzeari eta/edo koordinatzeari atxikitako lanpostu tekniko eta kualifikatuetan 35 urtez azpiko pertsonak izateagatik puntu bana emango zaio lizitatzaile bakoitzari, gehienez ere 2 punturaino.

2.3. Por la adscripción de personas menores de 35 años en puestos técnicos y cualificados adscritos a la ejecución, gestión y/o coordinación del contrato, se otorgará a cada licitador un punto, hasta un máximo de 2 puntos.

Horiek frogatzeko (2.1, 2.2. eta 2.3 atalak), zerrenda bat aurkeztuko, B ARTXIBO ELEKTRONIKOAN, da pertsona horietako bakoitza identifikatzen duena eta lanaren baitako bere funtzioak deskribatzen dituena. Gainera, dagokion unibertsitate-tituluaren, desgaitasun mailaren ziurtagiriak eta adina egiaztatzeko ziurtagiriak atxiki beharko dira.

Para demostrarlas (apartados 2.1, 2.2 y 2.3) se presentará, EN EL ARCHIVO ELECTRÓNICO B, una lista que identifique a cada una de estas personas y describa sus funciones dentro del trabajo. Además, deberán adjuntarse los certificados del título universitario, certificados de grado de discapacidad correspondiente y los certificados acreditativos de la edad.

3.- KONTRATUA GAUZATZEARI ATXIKITAKO TALDEAREN ESKARMENTUA: 5 puntu. (B ARTXIBO ELEKTRONIKOAN sartu beharrekoa)

3.-EXPERIENCIA DEL EQUIPO ADSCRITO A LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO: 5 puntos. (a incluir en ARCHIVO ELECTRÓNICO B)

Puntuak emango dira kontratua gauzatzeari atxikitako erredakzio-taldeak, azken 10 urtetan, urbanizazio zein berrurbanizazio proiektuak idazteagatik.. Idatzitako proiektu bakoitzagatik, betiere 30.000€ (BEZ kanpo) edo gehiagokoa izan bada kontratuaren prezioa, puntu bana emango zaio lizitatzaile bakoitzari, gehienez ere 5 puntu izango direlarik.

Se puntuarán los proyectos de urbanización y reurbanización redactados por el equipo redactor adscrito a la ejecución del contrato en los últimos 10 años. Por cada proyecto redactado, siempre que el precio del contrato haya sido igual o superior a 30.000 € (IVA excluido), se otorgará un punto por cada licitador, con un máximo de 5 puntos.

Lizitaziorako sarbidea eduki ahal izateko, kaudimen teknikoaren parte denez azken 5 urteetan, gutxienez kontratu bat izan duela 5000 metro karratutik gorako azaleradun urbanizazio zein berrurbanizaio proiektua idaztea, atal honetan ez da kontutan hartuko kaudimen teknikoa frogatzeko erabili den proiektuaren idazketa hori.

Dado que la redacción en los últimos 5 años del proyecto de urbanización o reurbanización de superficie superior a 5000 metros cuadrados, forma parte de la solvencia técnica, no se tendrá en cuenta en este apartado la redacción del proyecto por el que se acredita esa solvencia técnica.

Horien justifikazioa erantzukizunpeko adierazpen bidez egingo da, non zerrendatuko diren proiektuaren izena, kontratua zein bezerorentzat idatzi den eta kontratuaren urtea eta prezioa. Arrasateko Udaleko zerbitzuek eskatzen diotenean, erantzukizunpeko adierazpenean adierazitakoak frogatu beharko dira dagokion administrazioaren ziurtagiri bidez.

La justificación de los mismos se realizará mediante declaración responsable en la que se relacionará el nombre del proyecto, el cliente para el que se ha redactado el contrato y el año y precio del contrato. A requerimiento de los servicios del Ayuntamiento de Arrasate-Mondragón, mediante certificación de la Administración correspondiente, deberán acreditarse los extremos señalados en la declaración responsable.

IRIZPIDEAK, BALIO IRITZIEN BIDEZ EBALUATU DAITEZKEENAK: 45 puntu (sartzeko A ARTXIBO ELEKTRONIKOAN)

CRITERIOS EVALUABLES MEDIANTE JUICIOS DE VALOR: 45 PUNTOS (a incluir En el ARCHIVO ELECTRÓNICO A)

4- TXOSTEN TEKNIKOA: 45 PUNTU. (A ARTXIBO ELEKTRONIKOAN sartzeko)

4.- MEMORIA TÉCNICA: 45 PUNTOS. (a incluir en el ARCHIVO ELECTRÓNICO A)

Memoria tekniko bat aurkeztu beharko da, **plegu teknikoetan jasotako eskema jarraituz.**

Memoria tekniko horretatik puntu hauek baloratuko dira:

Se deberá presentar una memoria técnica **siguiendo el esquema recogido en el pliego técnico.**

De dicha memoria técnica se valorarán los siguientes puntos:

4.1.- Proiektuak bete beharreko eskakizunen analisia: 20 puntu.

Proiektuak erantzun beharreko eskakizunak modu taldekatuan zerrendatuko dira, eta lizitatzaileak, proiektua idazten den bitartean, horiei nola helduko dien azalduko da.

Egindako planteamenduaren egokitasuna deskribatu beharko da, ahalik eta irizpide gehienen arabera, hautematen diren ahuleziak, indarguneak, mehatxuak eta aukerak zehatz adierazita.

Analisiak ezinbestean jaso beharko ditu proiektuaren baitan erabiliko diren mugikortasun estrategiak eta irizpideak (modu guztietarako) eta baita zoru naturala berreskuratu eta espazioak birnaturalizatzeko estrategia eta irizpideak ere.

4.1.- Análisis de los requerimientos que debe satisfacer el proyecto: 20 puntos.

Se listarán de forma agrupada los requerimientos que debe satisfacer el proyecto y el licitador explicará cómo pretende abordar su resolución durante el proceso de redacción.

Se describirá la idoneidad del planteamiento realizado en base al máximo de criterios posibles, relacionando de forma concreta las debilidades, fortalezas, amenazas y oportunidades detectadas.

El análisis deberá recoger, sin excepción, las estrategias y criterios de movilidad que se utilizarán en el proyecto (para todos los modos), así como las estrategias y criterios que se utilizarán para la recuperación del suelo natural y la renaturalización de espacios.

4.2.- Proiektua idazteko lanetan izango diren mugarri kritikoak identifikatzea: 5 puntu.

Urbanizazio Proiektua idazteko lanek irauten duten bitartean agertuko diren mugarri edo une kritikoen erlazioa egingo da, edonolako izaera izan dezaketelarik ere mugarri horiek. Halaber, mugarri edo une kritiko horien eragina txikitzeko proposatzen diren neurriak ere deskribatuko dira.

4.2.- Identificación de hitos críticos a afrontar durante la elaboración del proyecto:5 puntos.

Se relacionarán los hitos críticos a los que se deberá hacer frente mientras duren los trabajos de redacción del Proyecto de Urbanización, sean del tipo que sean. Así mismo, se describirán las medidas que se proponen para la minimización de los efectos de esos hitos o momentos críticos.

4.3.- Jasangarritasunaren ikuspegitik, proiektuan landu beharreko lanen deskribapena: 10 puntu.

Proiektuan aintzat hartuko diren jasangarritasun aldagaiak deskribatuko dira. Jaso beharko dira: energia-alderdiak, emisioenak, birnaturalizazioarenak, proiektuan erabiliko diren material lehenetsiak, eraikuntza-elementuei emango zaien tratamendua, instalazioena, ekonomia zirkularrari egindako ekarpenak, eta abar.

4.3.- Descripción de los trabajos a abordar en el proyecto desde la visión de la sostenibilidad: 10 puntos.

Se describirán las variables de sostenibilidad que se tomarán en consideración en el proyecto. Se deberán recoger: aspectos energéticos, de emisiones, de renaturalización, de materiales prioritarios a emplear en el proyecto, tratamiento de los elementos constructivos, aportación a la economía circular, etc.

4.4.- Proiektuan berdintasuna eta inklusibitatea nola txertatuko diren deskribatzea: 10 puntu.

Alderdi horiek nola bermatuko diren azalduko da, bai proiektua idazteko prozesuan, baita lortzen den azken produktuan ere. Halaber, berdintasuna eta inklusibitatea lortzeko eremuak dauzkan – eta proiektua aurre egin beharko dizkien – baldintzapen nagusiak zerrendatuko dira, eta horien konponketari proiektuan nola helduko zaion deskribatuko da.

4.4.- Descripción de cómo se van a implementar la igualdad y la inclusividad en el proyecto: 10 puntos.

Se explicará cómo se garantizarán dichos aspectos, tanto en la redacción del proyecto como en el producto final que se obtenga. Así mismo, se relacionarán los principales condicionantes que presenta el ámbito – y a los que el proyecto debe enfrentarse -- para la consecución de la igualdad y la inclusividad. Se describirá cómo se afrontará su resolución en el proyecto.

Inola ere ez dira sartu behar atal honetan ez proposamen ekonomikoa ez adjudikazio irizpideen beste edozein datu, irizpideok modu automatikoan zenbatu daitezkeenak.

SPKLren 146.3 artikuluaren arabera, balorazio orokorrerako onartuak izateko beharrezkoa izango

En ningún caso debe de incluirse en el presente apartado la proposición económica o cualesquiera otros datos correspondientes a criterios de adjudicación cuantificables de forma automática.

Conforme al artículo 146.3 de la LCSP, para ser admitidos a la valoración global, se exigirá que, en los

da formula bidez kuantifikatzekoak ez diren irizpideetan enpresa lizitatzaileek % 50eko gutxieneko muga lortzea balio-iritzi baten mende dauden eta formula bidez ebaluatzekoak ez diren irizpideen multzoan. **Hala, Kontratazio Mahaiak ez ditu kontuan hartuko 22,5 puntutara iristen ez diren eskaintzak.**

criterios no cuantificable mediante fórmulas, las empresas licitadoras alcancen un umbral mínimo del 50% de la puntuación en el conjunto de los criterios sometidos a un juicio de valor y no evaluables mediante fórmulas, de forma que **no sean tenidas en cuenta por la Mesa de Contratación las ofertas cuya puntuación no alcance lo siguiente: 22,5 puntos.**

9. ZER AHALMEN ETA KAUDIMEN BEHAR DEN KONTRATATZEKO

Kontratazio prozedura honetan parte hartu ahal izango dute pertsona naturalek edo pertsona juridikoek, betiere ahalmen eta gaitasun juridiko osoaren jabe badira jarduteko, egiaztatzen badute kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala, eta ez badaude sartuta debekuetako batean ere, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenaren 71. artikuluak xedatuak. Kaudimena egiaztatu eta ebaluatuko da klausula honetan ezarritako baliabideen arabera.

Halaber, beren kabuz egin ahal izango dute edo baimendutako ordezkari baten bitartez, ahalordetzaren bidez, hartarako emana. Pertsona juridiko baten izenean bere kideren bat aurkeztuz gero, agiriz frogatu beharko du ahalmendurik dagoela hori egiteko. Kasu batean nahiz bestean, ordezkariari ere eragiten diote kontratatzeko dauden ezintasun arrazoi horiek.

Gainera, lizitatzaileen helburua izango da jarduerak egitea, kontratu honen xedearekin zuzeneko harremana dutenak, eta behar beste langiledun eta materialdun antolamendu bat edukitzea, kontratua egoki exekutatzeko.

9. CAPACIDAD Y SOLVENCIA PARA CONTRATAR

Podrán tomar parte en este procedimiento de contratación las personas naturales o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional y no estén incursas en ninguna de las prohibiciones para contratar establecidas en el artículo 71 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público. La solvencia se acreditará y evaluará de acuerdo con los medios establecidos en la presente cláusula.

Asimismo, podrán hacerlo por sí o representadas por persona autorizada, mediante poder bastante otorgado al efecto. Cuando en representación de una persona jurídica concurra algún o alguna miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultada para ello. Tanto en uno como en otro caso, a la representante le afectan las citadas causas de incapacidad para contratar.

Además, la empresa licitadora deberá tener como finalidad realizar actividades que tengan relación directa con el objeto del presente contrato y disponer de una organización dotada de elementos personales y materiales suficientes para la debida ejecución del mismo.

Esp. kodea: 2025CHOZ0049

Gaia: 2014ko TAKOLO-GOIRU TARTEAREN BERRURBANIZAZIO PROIEKTUKO D FASEAREN BERRIDAZKETARAKO ZERBITZUA

ENPRESA SAILKATUEN ERREGISTRO OFIZIALA

Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 159.4 a) artikuluan xedatutakoaren arabera, prozedura ireki sinplifikatuetan, lizitatzaile guztiek izena emanda egon behar dute Estatuko edo Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean, eskaintzak aurkezteko azken egunean, betiere horrek ez badakar mugatzea lehia.

Ondorio horietarako, onargarritzat joko da, halaber, dagokion erregistroan inskribatzeko eskaera eta horretarako nahitaezko dokumentazioa aurkeztu dituela egiaztatzen duen lizitatzailearen proposamena, betiere eskaera eskaintzak aurkezteko azken eguna baino lehenagokoa bada. Hori egiaztatzeko, honako hauek aurkeztu beharko dira: dagokion erregistroak egindako eskaeraren hartu-agiria, eta nahitaezko dokumentazioa aurkeztu izanaren eta zuzentzeko errekerimendurik jaso ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena.

Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 139.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, proposamena aurkezteak esan nahi du baimena ematen diola mahaiari eta kontratazio organoari Estatuko edo Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean jasotako datuak kontsultatzeko.

Prozedura honetan, lehia mugatu ez dadin, zer ahalmen eta kaudimen behar den kontratatzeko, <u>EGIAZTATUKO DU ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAK BAKARRIK</u>, honela:

REGISTRO OFICIAL DE EMPRESAS LICITADORAS:

De conformidad con el artículo 159.4 a) de la Ley de Contratos del Sector Público, en los procedimientos abiertos simplificados, todas las licitadoras deberán estar inscritas en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público del Estado o de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en la fecha final de presentación de ofertas, siempre que ello no conlleve una limitación a la concurrencia.

A estos efectos, también se considerará admisible la proposición del licitador que acredite haber presentado la solicitud de inscripción en el correspondiente Registro junto con la documentación preceptiva para ello, siempre que tal solicitud sea de fecha anterior a la fecha final de presentación de las ofertas. La acreditación de esta circunstancia tendrá lugar mediante la aportación del acuse de recibo de la solicitud emitido por el correspondiente Registro y una declaración responsable de haber aportado la documentación preceptiva y de no haber recibido requerimiento de subsanación.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 139.1 de la de la Ley de Contratos del Sector Público, la presentación de la proposición supone la autorización a la mesa y al órgano de contratación para consultar los datos recogidos en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público del Estado o de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En el presente procedimiento, al objeto de evitar una limitación de la concurrencia, la capacidad y solvencia para contratar se acreditará, <u>SOLAMENTE POR LA EMPRESA ADJUDICATARIA</u>, de las siguientes formas:

1) Esleipedun proposaturiko enpresa egonez gero inskribatuta Estatuko edo Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean, Kontratazio Mahaiak ofizioz egiaztatuko du inskripzioa.

Adjudikaziodun proposaturiko enpresa EZ BADAGO inskribatuta Estatuko edo Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean, <u>eskaintzak aurkezteko azken eguna baino lehen inskripzioa eskatu arren</u>, agiri hauek aurkeztuko ditu:

* Enpresariaren nortasun juridikoaren egiaztagiriak eta, hala badagokio, haren ordezkariarenak.

Nortasuna egiaztatuko da hauek aurkeztuta:

- Nortasun Agiria, lizitatzaileak bere izenean jardunez gero.
- Beste pertsona edo entitate baten ordez jardunez gero, Nortasun Agiria eta ahalordetze eskritura. Agiriak kalifikatzeko egintzan, ofizioz, ahalordetza askietsiko da.
- Lizitatzailea pertsona juridikoa denean, eraketa eskritura edo, hala badagokio, aldaketa eskritura, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan, eta identifikazio fiskaleko kodea, inskripzioa eskatu dakiokeenean, aplikagarria zaion merkataritza legeriaren arabera. Hala izan ezean, jarduteko gaitasuna egiaztatuko du eraketa eskritura edo agiriaren bidez, estatutuen bidez edo sorrerako egintzaren bidez, non jasoko diren jardueraren arauak,

1) En el caso de que la empresa propuesta como adjudicataria se encuentre inscrita en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público del Estado o de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Mesa de Contratación comprobará de oficio dicha inscripción.

En el caso de que la empresa propuesta como adjudicataria NO se encuentre inscrita en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público del Estado o de la Comunidad Autónoma del País Vasco, <u>pese a haberlo solicitado en fecha anterior a la fecha final de presentación de las ofertas</u>, deberá presentar los siguientes documentos:

* Documentos acreditativos de la personalidad jurídica del empresario o de la empresaria y, en su caso, de su representación.

La personalidad se acreditará mediante la presentación de:

- Documento Nacional de Identidad si la persona licitadora actúa en nombre propio.
- En el caso de que se actúe en representación de otra persona o entidad, Documento Nacional de Identidad y escritura de apoderamiento. En el acto de calificación de la documentación se procederá, de oficio, al bastanteo del poder.
- Cuando la licitadora sea una persona jurídica, escritura de constitución o modificación, en su caso, debidamente inscrita en el Registro Mercantil y número de identificación fiscal, cuando la inscripción fuera exigible conforme a la legislación mercantil que le sea aplicable. Si no lo fuere, la acreditación de la capacidad de obrar se realizará mediante la escritura o documento de constitución, estatutos o acto fundacional, en el que constaren las normas por las que se regula su actividad, inscritos, en

eta inskribaturik egongo diren, hala badagokie, dagokion erregistro ofizialean. Europar Batasunean estatu kideetako enpresari ez espainiarrak direnean, egiaztatu behar dute inskribaturik daudela lanbide edo merkataritza erregistro batean, baldintza hori eskatzen badu estatuko legeriak.

su caso, en el correspondiente Registro oficial. Cuando se trate de empresarios o empresarias de nacionalidad no española de Estados miembros de la Comunidad Europea, deberán acreditar su inscripción en un registro profesional o comercial cuando este requisito sea exigido por la legislación del Estado respectivo.

- Hainbat enpresarik lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa elkarte bat eratuz, elkartekide bakoitzak egiaztatu beharko ditu gaitasuna eta kaudimena jarduteko, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera, eta, halaber, konpromisoa hartuko dute formalki ABEE (aldi baterako enpresa elkartea) eratzeko, kontratuaren adjudikaziodun irtenez gero. Era berean, proposamenean adieraziko dute ABEEko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen, kide guztien kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatzeko.

- En el caso de que varios empresarios o empresarias acudan a la licitación constituyendo una Unión Temporal de Empresas, cada una de las que la componen deberá acreditar su capacidad y su solvencia conforme a lo establecido en los puntos anteriores, y, asimismo, aportar el compromiso de constituirse formalmente en UTE en caso de resultar adjudicatarios. Igualmente, indicarán en la proposición la parte del objeto que cada miembro de la UTE realizaría, con el fin de determinar y comprobar los requisitos de solvencia de todos ellos y ellas.

* Erantzukizunez eta berariaz adieraztea ez dagoela sartuta kontratatzeko debekuetako batean ere, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenaren 71. artikuluan aipatzen direnak.

* Declaración expresa responsable de no estar incurso en ninguna de las prohibiciones de contratar enumeradas en el artículo 71 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

* Ziurtagiriak, adieraziz egunean dagoela zerga obligazioetan eta Gizarte Segurantzarekin, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak.

* Certificados de hallarse al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.

2.Kaudimen ekonomikoaren eta finantzarioaren egiaztagiria edo egiaztagiriak. Bi alderditan justifikatu beharko da:

2. El documento o documentos que acrediten la solvencia económica y financiera. Deberá justificarse en dos aspectos:

- Lizitatzaileak justifikatu beharko du baduela arrisku profesionalak estaltzeko ardura zibileko aseguru bat, 100.000 euroko kopuru minimokoa.

- Gainera, lizitatzaileen azken 3 urteetako fakturazioaren baturak 100.000 €koa izan beharko du, gutxienez.

Eskaintzak aurkezteko orduan, atal honen justifikazioa zinpeko adierazpen bidez egingo da (plegu honetako I. Eranskina) adieraziz asegurua duela eta zehaztuz azken 3 urteetako fakturazioak gehituta (2022, 2023 eta 2024) gutxienez 100.000koa dela. Adjudikaziodunari soilik eskatuko zaio horiek justifikatzeko aseguru polizaren ziurtagiriaren eta aipatutako hiru urteetako BEZaren aitorpenaren bidez.

- Justificante de la existencia de un seguro de responsabilidad civil por riesgos profesionales por un importe mínimo de 100.000 euros.

- Además, la suma de la facturación de los licitadores en los últimos 3 años deberá ser como mínimo de 100.000 €.

La justificación de este apartado, en el momento de presentación de ofertas se realizará mediante declaración jurada (anexo I de este pliego) indicando que dispone de seguro y especificando que las facturaciones de los 3 últimos años (2022, 2023 y 2024) suman como mínimo 100.000 €. Únicamente se exigirá al adjudicatario su justificación mediante certificación de la póliza de seguro y declaración del IVA de los tres años citados.

3. Egiaztatzea kaudimen teknikoa edo profesionala. Hiru alderditan justifikatu beharko dena:

- Lizitatzaileak justifikatu beharko du, azken bost urteetan, gutxienez kontratu bat izan duela 5.000 metro karratutik gorako azaleradun urbanizazio zein berrurbanizazio proiektuak idazteko.

3. Acreditación de la solvencia técnica o profesional. Deberá justificarse en tres aspectos:

- El licitador deberá justificar haber tenido, en los últimos cinco años, al menos un contrato para la redacción de proyectos de urbanización o reurbanización de superficie superior a 5.000 metros cuadrados.

Horren justifikazioa erantzukizunpeko adierazpen bidez egingo da, zehaztuz azken 5 urteetan 5.000 metro karratutik gorako azaleradun urbanizazio edo berrurbanizazio proiektua idazteko, bere prezioa, azalera, urtea eta bezeroa adierazita. Arrasateko Udaleko zerbitzuek eskatzen diotenean, erantzukizunpeko adierazpenean adierazitakoak frogatu beharko ditu esleipendunak, dagokien administrazio kontratugilearen ziurtagirien bidez.

La justificación se realizará mediante declaración responsable en la que se especifique el contrato para la redacción del proyecto de urbanización o reurbanización de superficie superior a 5.000 metros cuadrados en los últimos 5 años, indicando precio, superficie, año y cliente. El adjudicatario deberá acreditar, a requerimiento de los servicios del Ayuntamiento de Arrasate, mediante los correspondientes certificados de la Administración contratante, los extremos señalados en la declaración responsable.

- Kontratua egikaritzeko arduradunaren bai eta lanaz zuzenean arduratuko diren teknikarien titulu akademikoak:

- Titulaciones académicas del responsable de la ejecución del contrato y de los técnicos responsables directos del trabajo:

Titulazio hori Arkitektoarena, ala Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniariarena izan beharko da (edo horien baliokide diren Arkitektura edo Ingeniaritza Masterrena) beraien lanbideetan jarduteko gaitzen dituena.

Dicha titulación deberá ser la de Arquitecto o Ingeniero de Caminos, Canales y Puertos (o Máster en Arquitectura o Ingeniería equivalentes) que les habilite para el ejercicio de sus profesiones.

Horien justifikazioa erantzukizunpeko adierazpen bidez egingo da. Adierazpenean jaso beharko da pertsona bakoitzaren identifikaziorako datuak eta daukan titulua. Arrasateko Udaleko zerbitzuek eskatzen diotenean, erantzukizunpeko adierazpenean adierazitako tituluak frogatu beharko ditu esleipendunak.

Su justificación se realizará mediante declaración responsable. En la declaración deberá constar los datos identificativos de cada persona y el título que posea. El adjudicatario deberá acreditar, a requerimiento de los servicios del Ayuntamiento de Arrasate-Mondragón, los títulos señalados en la declaración responsable.

Ez dira onartuko aurreko baldintzak betetzen ez dituzten edo/eta egiaztatzen ez dituzten lizitatzaileen proposamenik.

No serán admitidas las propuestas de los licitadores que no cumplan y/o acrediten las anteriores condiciones.

4.) Atzerriko enpresak badira, adieraztea edozein alorretako Espainiako epaitegi edo auzitegietako jurisdikzioaren mende jarriko direla, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta uko egingo diotela, hala badagokio,

4.) Para las empresas extranjeras, declaración de someterse a la jurisdicción de los Juzgados y Tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso,

atzerriko jurisdikzioari, halakorik egokituz gero lizitatzaileari.

Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 139.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, proposamena aurkezteak esan nahi du baimena ematen diola mahaiari eta kontratazio organoari datuak kontsultatzeko Estatuko edo Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean jasotakoak.

al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder a la empresa licitante.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 139.1 de la de la Ley de Contratos del Sector Público, la presentación de la proposición supone la autorización a la mesa y al órgano de contratación para consultar los datos recogidos en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público del Estado o de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

10. BALIABIDEAK NAHITAEZ ATXIKITZEKO KONPROMISOA

Horrez gain, enpresa lizitatzaileek honako giza baliabide eta baliabide material hauek atxiki beharko dituzte, gutxienez, kontratua gauzatzeko:

Langileak: Enpresa esleipendunak deskribatutako zerbitzua behar den langileria jarri beharko du zerbitzuaren menpe.

- **Euskara:** Kontratuari esleitutako lantaldeko pertsona batek egiaztatu beharko du euskara dakiela Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun mailako edo baliokidea (3. Hizkuntza Eskakizuna) den ziurtagiria aurkeztuz.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatu ahal izango da honela:

1. Agiriak aurkeztuta (tituluak edo ziurtagiriak), zeintzuk egiaztatuko baitute zerbitzua eman behar duen pertsonak hizkuntza gaitasuna duela.

2. Udalak ezartzen duen proba egitea (kalifikazio horrek ez du izango ezelako baliorik kontratazio espediente honetatik kanpo).

